

Emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan kontzientzia sortzea, aurtengo azaroaren 25eko egitarauaren helburua

- **Aurten ere elkarlanean antolatu da Emakumeen Aurkako Indarkeriaren kontrako nazioarteko eguneko programa**

Andoainen, 24-11-04.- Hilabete bukaerarekin batera helduko da aurtengo Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako eguna. Beste urte batez, emakumeek egunerokoan bere bizitzako esparru guztietan jasaten duten egiturazko desberdinkeria salatuko dugu egun horietan.

Egiturazko arazoa dela aspaldian gabilta salatzen; eta egiturazko arazoa denez, konponbideak ere integrala behar du izan. Ezinbestekoak ditugu arazoari errotik helduko dioten berdintasun politikak garatzea eta indartzea. Andoaingo Udalak, zentzu horretan, irmo jarraituko du horien aldarrikapenean eta sustapenean. Baina badakigu hori ez dela nahikoa: politika horiek oinarria emango badigute ere, beharrezkoa dugu jendarte erantzun sendo bat izatea. Gizartearen sostengurik gabe, nekez egingo dute politika horiek aurrera. Hortaz, alde horretatik, deia luzatu nahi diegu herritarrei berdintasunaren alde eta indarkeria matxistaren aurka kontzientzia hartu eta erantzuna ematera.

Horren bidean, beti bezala elkarlanaren bidetik, Azaroaren 25 bueltarako egitarau oparoa prestatu dugu.

Azaroak 16, larunbata

19:00 Bastero Kulturgunean
Musika: 'En positivo' Alai abesbatza

Azaroak 21, osteguna

17:00 Ludotekan
Txapa tailerra

Azaroak 22, ostirala

17:00 Ludotekan
Antzerkia: 'Ametsen mundua'

Azaroak 23, larunbata

9:30 Kiroldegian
Tailerra: Autodefentsa feminista

17:30 Gaztelokalean
Giltzetako eta txapa tailerra

19:30 Bastero Kulturgunean
Bakarriketa: 'Ztandap' Mirari
Martikorena eta Idoia Torregarai

Azaroak 25, astelehena

18:30 Goikoplazan
Mugimendu feministaren ekimena

